

2015EKO OTSAILAREN 2AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Bia.

HILABETEA: Otsaila.

URTEA: Bi mila eta hamabosta.

HASIERAKO ORDUA: Goizeko zortziak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Koldo Agirre Mujika.

BILDUAK: M^a Mar Celaya González

Aitor Aldasoro Iturbe

Josi Insausti Mujika

Garbiñe Zurutuza Fernández

ETORRI GABEA: Alfonso Segade González

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2014ko azaroaren 17ko aktaren onespena.

2014ko azaroaren 17ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da.

2.- OBRAK KONTRATATZEA. Plegu teknikoa eta administratiboa onartzea eta lizitazio deialdia egitea.

Ezagutzera eman da, 2015eko urtarrilaren 26an Hirigintza batzordeak egindako proposamena:

“Lehenik. Zazpiturrieta, 4. areako 4.1 unitate egikaritzeko Hirigintza Proiektuan aurreikusitako J. M. Iturriotz-Joan XXIII igogailua exekutatzeko separata eta honen eranskina, “urbanizazio obra osagarriak” egiteari buruzkoa onartzea, horren guztiaren aurrekontua, 375.646,77 € (BEZ barne) izanik.

Bigarren. Jose Miguel Iturriotz-Joan XXIIIko igogailua, pasagunea eta urbanizazio osagarria eraikitze proiekturako (urbanizazio-proiektuaren separata) prozedura ireki bidezko lan-kontratuaren administraziozko klausula bereziaren plegua onartzea.

Hirugarren. Obrak kontratatze deialdi publikoa egitea, obren-esleipena ORMAK, S.L.U. rekin sinatu beharreko hitzarmenaren aldaketa behin betiko onartzearen eta 2015eko aurrekontua behin betiko onartzearen baitan.

1.- *Prozedura*: irekia publizitatearekin

2.- *Izapidetzea*: arrunta

3.- *Lizitazio prezioa*: 310.451,87 € BEZ kanpo, 375.646,77 € BEZ barne.

4.- *Egikaritze epea*: 3 hilabete.

5.- *Kaudimen tekniko edo profesionala eta ekonomikoari buruzko agiriak*:

1. Obrak egikaritzeko erabilgarri dituen teknikarien edo unitate teknikoen zerrendari buruzko adierazpena, enpresakoak izan zein ez izan; bereziki, kalitate-kontrolaz arduratzen diren langileak zein diren adierazi beharko da, dagozkion egiaztagiriak gaineratuta.
2. Enpresariaren eta enpresako zuzendaritzako kideen titulu akademikoak eta profesionalak eta, zehazki, obrako arduradunena.
3. Enpresariak kontratua gauzatzean aplikatu ahal dituen ingurumen arloko kudeaketa-neurrien adierazpena.
4. Enpresak urtean, batez beste, dituen langile kopuruari buruzko eta azken hiru urteetan zuzendaritzako langileek izan duten garrantziari buruzko adierazpena, dagozkion egiaztagiriak gaineratuta.
5. Lanak egiteko erabiliko diren makina, material eta ekipamendu teknikoei buruzko adierazpena, dagozkion egiaztagiriak atxikita.
6. Erantzukizun zibileko aseguruua.

6.- *Espedienteak*: administrazio-baldintzen eta baldintza teknikoen pleguak eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Udalaren web orrian (www.beasain.net). Zehazki kontratatzailearen profilean.

7.- *Proposamen ereduak*: Baldintza Administrazioen pleguaren azaltzen dena.

8.- *Aurkezteko epea, lekua eta ordua*: Proposamenak, Beasaingo Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, argitaratzen denetik eta hurrengo 26 egunetan.

9.- *Adjudikazio irizpideak*:

- Proposamen ekonomikoa 90 puntu.

- Euskera: 5 puntu.

- Berdintasuna: 5 puntu.

10.- *Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua*: plika irekitzea kontratatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.

11.- *Aurkeztu beharreko agiriak:* Lizitatzailleek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, Aitor Aldasoro jaunak (EAJ) galdetu du ea nork eraman behar duen obra-zuzendaritza.

Alkate jaunak erantzun du, orain arte bezala, Hektor Espin arkitektoak eta bere taldekoak eramango duela, nahiz eta kasu honetan proiektua lehendik eginda egon.

Aitor Aldasoro jaunak esan du bera ez dagoela horrekin ados.

Josi Insausti jaunak galdetu du zenbatekoa den separata horren kostua.

Alkate jaunak: orain ezin dizut esan. Hurrengo gobernu batzordean erantzungo dizut.

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 3 (BILDU eta ARALAR)

Aurkakoak: 1 (EAJ)

Abstentzioa: 1 (H1)

Etorri gabea: 1 (PSOE)

Horren ondorioz, ezagutuz Idazkariak egindako txostena esleipen-irizpideei buruz (euskara eta berdintasun esleipen-irizpideak legez kanpoak izango lirateke eta horren berri 2015eko urtarrilaren 26ko hirigintza batzordean eman zen), gehiengo soilarekin onartu da proposamena.

3.- ZORREI BAJA EMATEA. Zerga zorren (zerga, tasa eta prezio publikoak) eta zergazkoak ez diren zorren (isunak) baja emateako proposamena.

Ezagutzera eman da, 2014ko abenduaren 15eko Hazienda batzordeko proposamena, haua da:

“AURREKARIAK

Bilketa exekutiborako bulegoak, premiamendu espedienteak izapidetu eta gero hainbat zergadun ezagunen, zorrari aurre egiteko, ondasun edota eskubide eza egiaztatu ondoren, haien baja proposamena aurkezten du.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

1.- Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arauaren 74. Artikuluak ondorengo azaltzen du:

“Zerga zorra ezin izan bada zergabilketa prozeduretan kobratu zergapekoen kaudimengabezia oso zein partzialagatik, eta kaudimengabezia hori frogatuta badago, zerga zorra kreditu kobraezin joko da, erabat edo zati batean, preskripzio epearen barruan kobratzeko moduan jartzen ez den bitartean foru arau honen 177.2 artikuluan jasotakoaren arabera.”

2.- Bestalde, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergabilketa Erregelamenduaren 61 artikulua xedatzen du:

“Ordaintzera behartutakoei ez bazaie ezagutzen zor osoa kobratzeko bahitu edo gauzatu daitekeen ondasun edo eskubide nahikorik, huts egindako zorduntzat hartuko dira.

(...)

Kreditu kobraezintzat hartuko dira ordaintzera behartutakoak huts eginak izateagatik premiamenduzko prozeduran kobratu ezin izan diren kredituak.”

Hau guztia ikusirik, Hazienda Batzordeak Gobernu Batzordearen onespenerako aurkezten du ondorengo

PROPOSAMENA

Lehenik.- Kontzeptuka ondorengo kopurukoak diren eta guztira 18.794,19 eurokoa den atxikitako zerrendako zorrei baja ematea proposatzea Gobernu Batzordeari:

- Ibilgailuen zerga: 9.026,75 €
- Zaborbilketa tasa: 1.026,74 €
- O.H.Z.: 287,74 €
- Zirkulazioa lik: 199,38 €
- Trafiko isunak: 8.253,58 €

Bigarren.- Izapidetutako expedientea jendaurrean jartzea, G.A.Oean iragarkia argitaratuz, 15 laneguneko epean. Adierazitako epea amaitu edta inolako erreklamaziorik izaten ez bada, behin-betirako onartutzat joko dira bajak eta kontabilitatean jasoko da horren isla.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, proposamena aho batez onartu da berarekiko zeresanik ez dagoelako.

4.- BEASAINGO UDALAREN ZERGAK IKUSKATZEKO ETA LAGUNTZA EMATEKO ZERBITZUA. Kontratua luzatzeko proposamena.

Ezagutzera eman da, 2015eko urtarrilaren 22ko Hazienda batzordearen proposamena, hau da:

“AURREKARIAK

I.- 2011ko martxoaren 14an Gobernu Batzordeak erabaki zuen, prozedura irekiaren bidez, Beasaingo Udalaren zergak ikuskatzeko zerbitzua eta laguntza emateko kontratu administratiboa.

II.- Kontratazio mahaiak, 2011ko urtarrilaren 21ean egindako bileran, proposatu zuen Beasaingo udalaren zergak ikuskatzeko eta laguntza zerbitzua GESMUNPAL, S.A. enpresari esleitzea.

III.- Bi mila eta hamaikako otsailaren 4an aipatutako lanak egiteko kontratu administratiboa sinatu zen ondorengo baldintzetan:

Prezioa:

1.- Egiatzatua eta ados bukatzen diren espedienteak: 0 €, ikuskatu den espediente bakoitzeko.

2.- Ikuskatze-prozeduran likidatutako kopuruak (kuotak gehi isunak gehi interesak) eta kobratuak, zergaduna etorkizunean zerga-erroldeara sartzeari suposatzen dutenak eta etorkizunean jarraipena dutenak: ageriko kopuruen %70a.

3.- Ikuskapen prozeduran likidatutako eta ageriko kopuruentzat (kuotak gehi isunak gehi interesak) eta kobratuak, zergaduna erroldeara sartzeari suposatzen ez dutenak, noizik behin zergapeko egitateak direlako eta banaka eta errepikatu gabe debengatzen direlako: ageriko kopuruen %35a.

Diru kopuru hauetan BEZa ez dago sartuta.

Epea: lau urtetakoa izango da, kontratua sinatzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita (2011-2-4) eta beste bi urtez luzatzeko aukera izango da, Administrazioak espresuki horrela erabakitzen badu.

IV.- Ondoren, Gobernu Batzordeak 2013ko martxoaren 22an kontratua aldatzea erabaki zuen, Ikuskatze-prozeduran likidatutako kopuruak (kuotak gehi isunak gehi interesak) eta kobratuak, zergaduna etorkizunean zerga-erroldeara sartzeari suposatzen dutenak eta etorkizunean jarraipena dutenetan, ageriko kopuruen %60a prezioa izanez.

Hau guztia ikusirik, Hazienda Batzordeak Gobernu Batzordeari egiten dio ondorengo akordio

PROPOSAMENA

Beasaingo Udalaren zergak ikuskatzeko zerbitzua eta laguntza emateko kontratu administratiboa beste **urte batez** luzatzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamena aho batez onartu dute, berarekiko zer esanik ez dagoelako.

5.- EUSKERA ERABILERA PLANAREN EKINTZAK. Inplementatu daitezkeen onartzeko proposamena.

Ezagutzera eman da, Kultura eta Euskera batzordearen proposamena, 2014ko abenduaren 11koa, hau da:

“AURREKARIAK

1.- 2014ko apirilaren 3ko Udalbatzaren Osoko Bilkurak 2014-2017 bitarterako Euskararen Erabilera Plana onartu zuen. Ondoren Sail bakoitzak bere errealitatetik abiatu rik plangintzaldia aurkeztu du plan hori 2017a bitartean garatzeko.

2.- Sail guztiek bat datoz hainbat helburutan eta horren lanketari ekin behar zaio orain. Halere, badira lehentasuna duten helburu batzuk elkarrekin lanketa egitea eskatzen dutenak. Udalaren Plana den aldetik denok bateratsu jokatzeari ere beharrezkoa delako.

3.- Hori kontuan izanda, 2014ko azken hiruhilekorako lanketarako gutxieneko puntuak adostu eta horren lanketarako eta jarraipenerako sistema zehaztu.

AKORDIO PROPOSAMENA

Kultura eta Euskara batzordeak Beasaingo Udaleko Gobernu Batzordeari ondorengo onartzea proposatzen dio:

2014ko azken hiruhilekoan honako ekintza hauek landu eta garatuko dituzte Beasaingo Udaleko sailek:

1. Teknikarientzako prestakuntza eskainiko da batzordeak euskaraz jarraitu ahal izateko.
2. Sailetan euskarazko ahozko erabilera indartzeko jarrera asertiboak landuko dira.
3. Ordenagailuetako softwarea eta aplikazio informatikoak euskaraz jarri. Sor daitezkeen software berriak hizkuntzaren kudeaketa egokirako diseinatu.
4. Hizkuntzaren erabileran laguntzeko eta zalantzak argitzeko baliabideak ezagutu eta erabiltzeko moduan jarri.
5. Udalak azpikontratatzan dituen enpresei hizkuntza baldintzen jarraipena egingo zaie, adibidez Aldabe, Biharko (Arangoiti kudeatzen duen enpresa), Goikus, Goxara, Masquatro... Enpresa horiei, gainera, euskara plana diseinatu eta garatzeko aholkularitza emango zaie.

Plenoak eta herritarrekin egiten diren bilera ireki guztiak euskaraz izango dira, eta aldi bereko itzulpen sistemak erabiliko da bilera euskaraz jarraitzeko zailtasunak dituztenentzat.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira;

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ) esan du ez dela oso logikoa 2014ko azken hiruhilekoan egin beharreko ekintzak orain ekartzea Gobernu Batzordera eta

hobe litzatekeela aurtengo lehenengo sei hilabeteko gelditzen diren lau hilabetetarako ekintza horiek proposatzea.

Garbiñe Zurutuza andreak (ARALAR) adierazi du, proposamenean aipatzen diren lehenengo hiru ekintzak gauzatzen ari direla eta bilerak ere euskaraz egiten direla.

Aitor Aldasoro jaunak ihardetsi dio esanez, orain dela gutxi bileraren bat erdara hutsean egin zela.

Garbiñe Zurutuza andreak baieztapen horri esan dio, horrela egin zela bileran parte hartzen zutenek horrela eskatu zutelako. Nahiz eta ekintza horietako batzuk dagoeneko martxan jarrita egon, beste batzuk eguneroko lanean burutu behar direnak direla esan du.

Esateko besterik ezean, bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

6.- UDALARENTZAT ETA ORGANISMO AUTONOMOENTZAT ASEGURU-POLIZAK. Kontratua luzatzeko proposamena.

Ezagutzera eman da, 2015eko urtarrilaren 26ko, Antolakuntza batzordearen proposamena, hau da:

“AURREKARIAK

1º. *Sinatuta dago Beasaingo Udala eta LAGUNARO S.A Aseguru etxearen artean, 2011ko martxoaren 15eko datarekin kontratu bat, Beasaingo Udalak eta bere Erakunde Autonomoak izan ditzaketen arriskuak estaltzeko, egikaritza epea 4 urtetakoa eta beste bi urtez luzatzeko aukerarekin.*

2º. *Bai kontratuan eta baita ere berau sinatzeko onartu behar izan den baldintza pleguetan (eta bere iraupen aldiari indarrean dagoena), ondorengoa ezartzen da: “Kontratuaren egikaritza epea 4 urtetakoa izango da 2011ko martxoaren 1etik zenbatzen hasita, poliza guztiak aurretik aipatutako datan daudelako, eta beste bi urtez luzatu ahal izango da, kontratua amaitu baino lehen bi aldeek ados badaude. Luzapena, kasu guztietan, espresuki egin beharko da”.*

3º. *Idazkaritzaren txostena, 2014-11-06 data duena eta proposamen honi eransten zaiona.*

4º. *Pertsonal Teknikariaren azterketa eta proposamen honi eransten zaiona. Beraz, eta ulertzen denez legedira doitzen dela; Udal Antolakuntza Batzordeak Beasaingo Udaleko eskumeneko organoari eramaten dio bere onarpenerako ondorengo:*

AKORDIO PROPOSAMENA

LAGUNARO S.A. aseguru etxearekin hitzartuta dugun zerbitzu kontratua, 2011ko urtarrilaren 21 datako Baldintza Pleguetan izaten diren baldintza berdinetan beste bi urtez luzatzea onartzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, proposamenarekiko adostasuna azaldu da.

Beraz, bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

7.- ESKAERA ETA GALDERAK.

Eskaera eta galderen atalean honako hau aurkeztu da:

ORIA PASEALEKUKO IGOGAILUA

Aitor Aldasoro jaunak, galdetu da ea Oria Pasealekuko igogailuaren proiektua Eusko Jaurlaritzara bidali zen et zerbait esan duen.

Idazkariak esan du bidali zela eta ezer ez duela esan. Horrezaz gain, ondasun eta eskubideen zerrendari hasierako onespina emanez ebazpena eman zela eta espedienteja jendaurrean jarri zela ezagutzera eman du eta alegazioak aurkezteko epean ez dela inolakorik aurkeztu. Aldi berean igogailuaren hobi murriztua egiteko Industria Zuzendaritzari baimena eskatu zitzaion eta aldekoa dela dio.

Jarraian Idazkariak ondorengo azaldu du: jendaurreko epea 2015eko urtarrilaren 24an amaitu zen. Desjabetzearen balio teknikoari buruzko txostena egin da eta ondasun eta eskubideen zerrendari behin betiko onespina eman ondoren, Eusko Jaurlaritzari eskatu zio ondasuna lehenbailehen okupatzeko aitormena emateko.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera zortziak laurden gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.